



**ELGOIBARKO UDALA**

# **ESEP 2014-2017**

# **euskara**

# **sustatzeko**

# **ekintza**

# **plana**

**(III. Plan estrategikoa)**

## **ELGOIBAR**

## AURKIBIDEA

0. Sarrera.

1. Planaren helburu nagusia.

2. Helburu estrategikoak.

2.1. Euskararen jabekuntza.

2.2. Euskararen erabilera.

2.3. Euskararen elikadura.

3. Helburuak lortzeko zehar-lerroak.

3.1. Euskararen aldeko motibazioa.

3.2. Euskararen zabalkundea.

4. Euskararen erabilera eta hizkuntza eskubideak

5. Herriko eragileen ekarpenak: Egungo egoeraren diagnostiko laburra, helburuak eta ekintzak/programak ondorengo arloetan.

5.1. Familia transmisioa, Irakaskuntza eta Euskalduntze-alfabetatzea.

5.2. Aisia, Kirola eta Kulturgintza.

5.3. Arlo sozio-ekonomikoa: Lan arloa, Ostalaritza eta Merkataritza.

5.4. Euskararen Ondarea eta Ikerkuntza.

6. Ondorio nagusiak: lehenetsitako esparruak.

7. Elgoibarko ekintza planak izango dituen helburu estrategikoak eta zehar-lerroak.

8. Ekintza planean jasotako esparruak eta neurriak.

9. Ekintza planaren jarraipena eta ebaluazioa.

## 0. Sarrera.

Elgoibarko Udalak Eusko Jaurlaritzaren gomendioei jarraituta eta bere gidaritzapean sortu zuen lehen aldiz, 2003an, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia. Harrez gero, Elgoibarko Udalak EAEko udal gehienek bezala, 4 urtetik behin, plan estrategikoak ebaluatu, diseinatu eta onartu ditu Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak ezarritako irizpideei jarraituta.

Hamaika urte igarota, Eusko Jaurlaritzak Euskararen Aholku Batzordearen bitartez egindako Euskara Sustatzeko Ekintza Planak (ESEP) datozen 10 urteetan garatuko den hizkuntza politikaren neurri-proposamenak jasotzen ditu. Elgoibarko Udalak bat egiten du, Jaurlaritzak aurkeztutako ESEPen jasotako toki erakundeei dagozkien helburu, neurri eta ekintzekin, eta aurkezten den Plan Estrategikoan egiteko horietatik udalerrirako egokienak izan daitezkeenak hautatu dira, Elgoibarko gizarte eragileen ekarpenak kontuan hartuta. Plan Estrategikoa 2014 urtetik 2017ko abenduaren 31 arte indarrean egongo da, eta esan bezala, ESEPen proposatutako markoa kontuan hartuta egin da.

Eusko Jaurlaritzak udal mailako plan estrategikoak diseinatu eta onartzea sustatzen du 2014ko ekainaren 19an kaleratutako aginduaren 6. artikuluan ikus daitekeenez (*AGINDUA, 2014ko ekainaren 18koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, EAEko toki-erakundeetan EBP/ ESEP garatzeko diru-laguntzak emateko araubidea ezarri eta deialdia egiteko dena*).

Plan Estrategiko hori Euskara sailean diseinatuko diren urtekako kudeaketa planetan gauzatuko da. Plan horien jarraipena Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Saitetik ere egingo da 2014ko ekainaren 19an kaleratutako aginduan ikus daitekeenez (*AGINDUA, 2014ko ekainaren 18koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, EAEko toki-erakundeetan EBP/ESEP garatzeko diru-laguntzak emateko araubidea ezarri eta deialdia egiteko dena*).

## 1. Planaren helburu nagusia

Garai honetan, gero eta argiago nabaritzen da egungo eta etorkizuneko erronka nagusia euskararen erabilera dela. Errealitate ezaguna da euskararen erabilera ezagutza baino apalagoa dela. Datu soziolinguistikoei kasu egiten badiegu, ezagutzaren datua positiboa da, gaur egun Elgoibarren hirutik bi euskaldunak direlako, herritarren %66,78, hain zuzen ere. Gainera, euskaldunen erdia baino gehiago alfabetatua da; alegia, euskaldunen %74,90ek badakite euskaraz idazten eta irakurtzen. Erabileran dago gakoa, ordea; azken urteotan egindako kale-neurketen arabera, erabilerak ez du-eta Elgoibarren, sekula, %40ko muga gainditu. Elgoibarko herritarrek jasotzen duten euskarazko eskaintza (Euskaini 2008), berriz, 0,56koa da (0tik 1erako eskalan), erabilera datua baino dezente altuagoa.

Hortaz, eta ezagutzaren eremuan oraindik ere urrats sendoak egin behar diren arren, ezagutzaren eta erabileraren arteko aldea murrizteari eman behar zaio lehentasuna. Elgoibarko gizarteari bere osotasunean dagokio euskara erabiltzeko aukerak eta guneak bermatzea, zaintzea eta sustatzea, eta Udalak zeregin horretan lagundu behar dio, Erabilera Normalizatzeko Oinarrizko Legearen 5. artikulua dioena gauzatze bidean jartzeko: "Euskal Herriko herritar guztiek dute hizkuntza ofizialak jakiteko eta erabiltzeko eskubidea, bai ahoz eta bai idatziz".

Euskararen hedapen sozialean aurrerapauso handiak eman diren arren, esparru batzuetan, adibidez, lan arloan, oso ahula da euskarak duen presentzia. Hala ere, arriskutsua izan daiteke lehentasun garbirik finkatu gabe aldi berean eta esparru guztietara hedatu nahi izatea. Horrexegatik, plan honek lehentasunezko helburuak eta eragin eremuak identifikatuko ditu, euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak eta bermeak eskaini ahal izateko eta herritar guztien hizkuntza eskubideak errespetatuak izateko. Gizarte osoaren zeregina den aldetik, herritarren euskararekiko atxikimendua ezinbesteko baldintza da, orain arte egindako ahaleginei jarraipena emateko.

Euskararen normalizazioa bermatzeko behar diren hizkuntza-politikako neurriak definituko ditu Euskara Sustatzeko Ekintza Plan (ESEP) honek.

## 2. Helburu estrategikoak

ESEP hiru helburu estrategikotan oinarritzen da. Bat, ezinbestez, helburu nagusia baita, euskararen erabilera izango da. Erabilerarekin batera jabekuntzak eta elikadurak osatzen dute helburuen atala.

### 2.1. Euskararen jabekuntza

Euskararen jabekuntza edo eskuratze-prozesuan hiru esparru bereiz daitezke: familia bidezko transmisioa, alde batetik, euskarazko irakaskuntza, bestetik, eta helduen euskalduntzea euskalduntze-alfabetatzea, azkenik.

### 2.2. Euskararen erabilera

Euskararen erabileran gehien eragiten duten faktoreak honako hauek dira: hiztunen kopurua, hiztunek euskaraz egiteko duten gaitasuna edo erraztasuna eta aukerak, inguruan harreman sare euskalduna izatea, hots, familian, lagunartean, auzoan, kalean, sarean... solaskide euskaldunak izatea, eta, azkenik, hizkuntzarekiko atxikimendua.

Etorkizuneko erronka nagusia da herritarrei eskaintzen zaizkien zerbitzu guztiak bi hizkuntzetan egongo direla bermatzea.

### **2.3. Euskararen elikadura**

Hizkuntza eroso eta erraz hitz egin eta erabiliko bada, elikatu egin behar da. Euskal hiztunak euskaraz behar ditu ereduak eta edukiak, bere hizkuntza jarduna aberasteko.

Euskararen erabilera bi arlo nagusi ditu: bata sorkuntza eta bestea kontsumoa. Beraz, euskarazko kalitatezko sorkuntza sustatu eta babestu behar da eta, horrekin batera, euskarazko kontsumoa indartu.

## **3. Helburuak lortzeko zehar-lerroak**

Helburu estrategikotzat jo diren jabeakuntza, erabilera eta elikaduraren ondoan badira haiek elikatzen dituzten beste jarduera mota batzuk ere, kontuan izan behar direnak. Horien artean daude euskararen aldeko motibazioa eta euskararen zabalkundea.

### **3.1. Euskararen aldeko motibazioa**

Euskararen aldeko motibazioak ikaste-prozesuarekin, alde batetik, eta euskararen erabileraekin, bestetik, zerikusia izan dezake. Izan ere, motibazioa ezinbesteko baldintza izaten da askotan hizkuntza ikasi eta erabiltzeko.

Motibazioa ez da erraz lortzen diren ezaugarrietako bat, baina, behar-beharrezkoa da euskararentzako erabilera-eremuak irabazi nahi badira.

### **3.2. Euskararen zabalkundea**

Hizkuntzaren irudian eta kultur ekoizpenen prestigioan berebiziko eragina du zabalkundea. Beharrezkotzat ematen da euskararen erakargarritasuna lantzea eta era egokian proiektatzea. Euskara eta euskal kulturaren irudi irekia hedatzeak elebitasuna sendotzea ekarriko du, besteak beste euskaratik urrun sentitu izan diren herritarrei euskarara hurbiltzeko bideak erraztuko baitizkie.

## **4. Euskararen erabilera eta hizkuntza eskubideak**

Hizkuntza eskubideak aitortzea herritar guztien berdintasuna bermatzearen parte da. Hizkuntza eskubideen tratamenduan ezinbestekoa da progresibotasunaren irizpidea modu egokian aplikatzea, hizkuntza eskubideen gauzatze prozesua nahitaez mailakatu izango delako, ez egun batetik besterakoa.

Euskararen eta gaztelaniaren ofizialtasunak herritarrak udalarekiko harremanetan egiten duen hizkuntza hautuari, edozein dela ere, erantzun egokia ematea eskatzen du, eta arreta, beraz, aukeratutako hizkuntza ofizialean eskaintzea. Oraindik ere ahaleginak egin behar dira herritarraren hautuari egokiro erantzuteko eta, hortaz, hizkuntza eskubideak Udalaren alor guztietan bermatzeko.

## **5. Herriko eragileen ekarpenak: Egungo egoeraren diagnostiko laburra, helburuak eta ekintzak/programak ondorengo arloetan.**

Elgoibarko Udalak 2014-2017 ESEPi buruzko lanketa prozesua ireki zuen 2013an, urtean zehar euskarak Elgoibarren bizi zuen egoeraren diagnostikoa egin eta plan estrategiko berria diseinatu ahal izateko. Honetarako, ezinbestekoa izan da herriko eragileen parte-hartzea eta EMUNen aholkularitza .

Plan estrategiko hau garatzeko jarraitu den prozesu parte-hartzailearekin, gizarte eragileen partaidetza bilatu da. Horretarako, ESEPeke esparruak erreferentziatzat hartuz, bi saio egin dira praktika komunitate bakoitzeko eta saio bakoitzean 8-10 lagunek parte hartu dute.

Praktika komunitateak ondorengo esparruen arabera antolatu dira:

**\* *Familia transmisioa, Irakaskuntza, eta Euskalduntze-alfabetatzea.***

**\* *Aisia, Kirola eta Kulturgintza.***

**\* *Arlo sozio-ekonomikoa: merkataritza eta ostalaritza, eta lan mundua.***

**\* *Ondarea eta Euskararen ikerkuntza.***

Esparru bakoitza lantzerako arlo horretan ari den herriko jendea, hau da, gaia praktikan ezagutzen duen jendea gonbidatu da eta egindako bileretatik ekarpen asko jaso dira.

Datozen urteetan Elgoibarko Udalerrian garatuko den euskara arloko estrategia zehazteko, egun, aintzat hartu beharreko faktore nagusiak identifikatu dira. Esparru bakoitzaren lanketatik atera da: Egoeraren diagnostikoa AMIA matrizearen bidez (Aukerak, Mehatxuak, Indarguneak, Ahuleziak), hurrengo urteetarako helburu nagusiak eta helburu horiek lortzeko egin daitekeenari buruzko ideiak .

Idea horiek eta aurreko plan estrategikoaren balorazioa kontuan hartuz, taldeetan planteatutako helburuetarako estrategiak eta programak proposatu dira. Ondorengo tauletan taldeetan jasotakoa:

## DIAGNOSIA:

<b>5.1. FAMILIA TRANSMISIOA, IRAKASKUNTZA ETA EUSKALDUNTZE- ALFABETATZEA</b>	
<b>Indarguneak</b>	<b>Ahulguneak</b>
<ol style="list-style-type: none"><li>1. Familia barruko hizkuntza euskara izatea, haurrak txikiak direnean batipat.</li><li>2. Euskara ikasteko eta eskoletako euskara planetarako ematen diren laguntzak.</li><li>3. Eskolaz kanpo ere euskaraz jarduteko ekintza ugari daude umeentzat.</li><li>4. Euskalgintzak oinarri sendoa du, gauza asko egiten dira. Eragileen artean gogoa, motibazioa dago.</li><li>5. Erakundeen aldetik interes handia. Euskara Sailaren prestutasuna. Udalak Elgoibarko izarrarekin hitzarmenak eta egitasmoak.</li><li>6. Asumituta dago "D" ereduaren ezinbestekotasuna.</li><li>7. Gehienek euskaraz badakite. Gazteen ia %100ek euskaraz badaki eta guraso askok ere bai.</li><li>8. Euskararen aldeko jarrera positiboa. Bileran esandakoa "Elgoibar ez dut euskararik gabe imajinatzen".</li><li>9. Eskoletan euskara planak daude eta inplikazioa dago.</li></ol>	<ol style="list-style-type: none"><li>1. Euskara gutxi erabiltzen dute gazteek eskolaz kanpo. Gazteak errazegi pasatzen dira gaztelaniara. Askotan helduek ere jarrera bera.</li><li>2. Atzerritarrak gaztelaniara erraz, guk eurekin gaztelaniaz. Atzerritarrek jasotzen duten oinarritzko informazioa ez da nahikoa.</li><li>3. Euskararekiko begirune falta dago, lehen hitza...</li><li>4. Guraso euskaldunek seme-alabekin gaztelaniaz aritzen dira askotan. Transmisioa eten egiten da. Familien kontzientzia eragin beharra.</li><li>5. Euskaldunek euskara ikasteko, sakontzeko interesik ez, kontzientzia falta.</li><li>6. Garrantzirik ez diote ematen gazteek eta helduek erabilerari, "euskalduna naiz eta nahikoa da".</li><li>7. Erakundeak ekintzaile izan dira eta ez horrenbeste eragile.</li><li>8. Euskalgintzan ez dago sarerik.</li><li>9. Gazteekin eta gurasoekin aritzen diren elkarrean eragin beharra.</li></ol>
<b>5.2. AISIA, KIROLA ETA KULTURGINTZA</b>	
<b>Indarguneak</b>	<b>Ahulguneak</b>
<ol style="list-style-type: none"><li>1. Profesional, eragile.... asko dago herrian. Mugimendu asko dago.</li><li>2. Eskaintza zabala dago aisian eta kulturean; musika, antzerkia, hitzaldiak...</li><li>3. Umeak euskaraz ondo moldatzen dira eta eurentzako programaturakoa euskaraz da.</li><li>4. Herriari edota herriko historia, kultura, hizkerari buruzko Liburugintza sustatzen da, euskaraz argitaratzeko laguntzak ematen dira.</li><li>5. Udalak babesa ematen du.</li><li>6. Hitzarmenei esker, aisialdiko ekintzetan euskara bermatuta dago.</li><li>7. Kulturgintzan haur eta nerabeei zuzendutako ekintzak euskaraz dira.</li><li>8. Eskola kirolean profesionalak euskaraz aritzen dira.</li><li>9. Udalak kultur elkarteei euskara arloan laguntza eskaintzen die, zuzenketak egiteko, itzulpen laburrak, etab.</li><li>10. Udalak diru-laguntzak ematen ditu, eta komunikaziorako irizpideak zehazten ditu: ekintzen publizitatea, kartelak, mezuak... euskaraz ere izan behar dira,</li></ol>	<ol style="list-style-type: none"><li>1. Eskolaz kanpoko jardunetan ez dago %100 euskara bermatuta (kirolean, musika eskolan, hezkuntza ez formalean...)</li><li>2. Ekintzak antolatzeke orduan koordinaziorik ez, eta ondorioz, ekintza batek bestea estal dezake. Adib.: udako aisialdi eskaintzan data berean ekintza ezberdinak.</li><li>3. 18 urtetik gorakoentzako euskarazko eskaintza gutxi dago. Euskarazko kultur produkzioak ez du harrera handirik izaten.</li><li>4. Euskarazko filmeen produkzioa oso txikia da. Nerabe eta helduek euskarazko pelikulak txarrak direnaren aurreiritzia dute.</li><li>5. Elkarte batzuek erdaraz funtzionatzen dute eta ekintzak ere erdaraz antolatzen dituzte.</li><li>6. Euskaraz funtzionatzeko orduan, elkarte asko ez dira gai mezuak, egitarauak... euskaraz sortzeko. Prestakuntza beharra.</li><li>7. Kirol entrenatzaileak erreferente dira eta euskaldunak izatea lortu beharko genuke. Kontzientziatu beharra dute. Kirolean euskara entrenatzaileen esku gelditzen da.</li><li>8. Kirol Patronatuak antolatutako aerobik, spinning... saioetan abestiak nagusiki gaztelaniaz, ez da kontuan hartzen euskara.</li></ol>

### 5.3. ARLO SOZIO-EKONOMIKOA: LAN-MUNDUA, OSTALARITZA ETA MERKATARITZA

Indarguneak	Ahulguneak
<p>1. Elgoibarren prestigioa duten eta eredu diren enpresek badute euskara plana.</p> <p>2. Denda eta taberna batzuetan langile euskaldunak egoteak balio erantsia ematen dio.</p> <p>3. Establezimenduetan dendari asko euskaldunak dira, ostalariak ere bai.</p> <p>4. Merkatarari elkarteak egoteak erraztu egiten du ekintzen antolaketan, komunikazioa...</p> <p>5. Enpresetako langileen euskararen ezagutza goruntz doa eta gero eta jende gehiagok ulertzen du euskaraz.</p> <p>6. Udalak laguntzak ematen ditu enpresetako euskara planak abian jartzeko, errotulu nagusia euskaraz jartzeko...</p> <p>7. Elgoibarko Izarraren laguntza.</p> <p>8. Lanbide Heziketako ikastetxeek euskara planak dituzte eta diru-laguntzak jasotzen dituzte.</p>	<p>1. Denda-taberna askotan euskara ez dute beharrezko ikusten langileak hartzerakoan. Ostalaritzak gero eta langile kanpotar gehiago.</p> <p>2. Herritar askok ez du tabernetan euskaraz eskatzen. Gizarte presioa falta da.</p> <p>3. Enpresa mundua oso erdalduna da, lana erdaraz egiten da. Enpresa askotan ez dago euskara planik.</p> <p>4. Denda eta tabernetan euskararekiko ez dago berezko inizatibarik.</p> <p>5. Ostalaritza elkarerik ez dago.</p> <p>6. Euskaraz idazteko erraztasunik ez dute dendari eta tabernariak, sarri erdarara jotzen dute.</p> <p>7. Eleaniztasuna. Enpresa batzuetan harremanak euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez dira eta euskarak gero eta eremu txikiagoa du.</p> <p>8. Lan inertiak gaztelerara eramaten gaitu. Militantzia falta</p> <p>9. Erraztasun eta zuzentasun ezagatik, beldurra nabari da euskara erabiltzeko orduan.</p> <p>10. Enpresetan erreferente falta dago, zeintzuk dira aurreratuenak? Praktika onak falta dira.</p> <p>11. Euskara ez da derrigorra. Hizkuntzaren kudeaketa ez da enpresaren lehentasuna.</p>

### 5.4. EUSKARAREN ONDAREA ETA IKERKUNTZA

Indarguneak	Ahulguneak
<p>1. Elgoibarko euskara eta toponimia jasota daude eta ahalegin handia egin da horretarako.</p> <p>2. BARRENe bidez euskara ikasi edo hobetu dute askok.</p> <p>3. Baserri eta kale-izenak euskaraz egotea gaur egun.</p> <p>4. Ahotsak.com-erako egindako lana (ahots grabaketak-digitalizazioak).</p> <p>5. Udalak euskara ikerketarako beka ere eskaintzen du.</p> <p>6. Ondareari buruzko liburu dezente daude.</p> <p>7. Ondarearen inguruan jende eta elkarte asko daude; dantza, bertsolariak, historiazaleak...</p> <p>8. Makina-Erreminta gaia hartuta sortzaileen ahozko jarduna jaso da.</p> <p>9. Makina-Erremintarekin zerikusia duten eraikinetan plakak jarriko dira.</p> <p>10. Euskarak Elgoibarren lan esparrua badu, tresna badago, ikerketa gaiak ere, jende prestua eta prest dagoena ere badago.</p>	<p>1. Jakingarri asko dago eta jendeari helaraztea falta da. Elgoibarko berbetia, toponimia... gizarteratzea edo herriratzea falta da.</p> <p>2. Haur eta gazteekin lanean dabilzanekin landu beharko lirake horrelako gaiak. Herriko berbetia eskoletan zabaltzeko ahalegintxoak egin da baina ez dirudi lan erraza denik.</p> <p>3. Belaunaldien arteko transmisio-etena dago. Gazteek zuzena ez den euskara erabiltzen dute sarri, gaztelaniarekin nahastuz.</p> <p>4. Gazte hizkerari buruzko ikerketarik ez da egin. Gazteen berba jarduna ez da jaso.</p> <p>5. Hitanoa jasota dago baina gizarteratzea falta da.</p> <p>6. Elgoibarko Euskara eta Euskaldunak XX.mendean ikerketa egin gabe dago.</p> <p>7. Paleo-toponimia guztiz jaso gabe dago eta jendea prestatuta eta prest dago lan hori egiteko.</p> <p>8. Lan solteak daude, bateratu gabe. Arloka planifikatzea eta digitalizatzea falta da.</p> <p>9. Auzoetako mapetan baserri-izenak eta bide-izenak eguneratu gabe daude.</p>



## HELBURUAK ETA ESTRATEGIAK:

### 5.1. FAMILIA TRANSMISIOA, IRAKASKUNTZA ETA EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEA

**\* Guraso euskaldunak transmisioaren garrantziaz kontzientziatzea eta eredu bihurtzea.**

- Guraso euskaldunen sarea sortuz.
- Gurasoen artean kontzientzia sortuz.
- Guraso eta/edo seme-alaben arteko ekintzak euskaraz antolatuz.
- Euskaraz ez dakiten gurasoak euskara ikastera bultzatuz

**\* Haur, nerabe eta gazteen eskolaz kanpoko erabilera eragitea.**

- Haurrak/gazteak ibili ohi diren eskolaz kanpoko esparruetan euskararen erabilera bermatuz.
- Euskal gazte eragileak/erreferenteak agerian jarri edota ezagutzera emanaz.
- Haurrak/gazteak era naturalean euskararen garrantziaz kontzientziatuz (kuadrillan, bikotean, eskolan...).
- Gazteak eurak protagonista izango diren ekintzak antolatuz.

### 5.2. AISIA, KIROLA ETA KULTURGINTZA

**\* 5-20 urtekoen eskolaz kanpoko jarduerak euskaraz bermatzea.**

- Kanpoko jardueren azterketa eginez eta ekintzak martxan jarri
- Jardueretako liderrak euskaldunak izanez edota euskaldunduz.
- Haur eta gazteentzako erakargarriak diren ekintzak antolatuz.

**\* Helduentzako aisialdiko euskarazko eskaintza handitzea.**

- Aisialdiko euskarazko eskaintza indartuz eta gaztelaniazkoan euskarari sarbidea emanaz.
- Euskal hiztunak eta erdal hiztunak kontzientziatuz.

### 5.3. ARLO SOZIO-EKONOMIKOA: LAN-MUNDUA, OSTALARITZA ETA MERKATARITZA

**\* Merkataritzan eta ostalaritzan euskararen erabilera gehitzea.**

- Dendari eta ostalariekin euskararen erabilera handitzeko ekintzak antolatuz.
- Herritarrei zuzenduriko ekintzak-kanpainak eginez.

**\* Enpresetan euskararen erabilera handitzea.**

- Enpresetan euskararen aldeko pausoak emanaz.
- Euskara planak sustatzeko kanpainak eginez.
- Praktika onak zabalduz.

### 5.4. EUSKARAREN ONDAREA ETA IKERKUNTZA

**\* Elgoibarko ondarea (berbetia, toponimia, ahotsak) herrira zabaltzea.**

- Elgoibarko euskara eta toponimia zabalduz.

**\* Kultura ondarean lanean diharduen jendea/elkarteak biltzea eta lanak bateratzea.**

- Ondarean dihardutenak elkartuz eta babestuz, proiektu komunak aurrera eramanez.

**PROGRAMAK:**

<b>5.1. FAMILIA TRANSMISIOA, IRAKASKUNTZA ETA EUSKALDUNTZE- ALFABETATZEA</b>			
<b>Helburu estrategikoak</b>	<b>Adierazleak</b>	<b>Estrategiak</b>	<b>Ekintza/programa posibleak</b>
<b>Guraso euskaldunak transmisioaren garrantziaz kontzientziaz eta eredu bihurtzea.</b>	Batzordeko guraso kopurua.  Kontzientziazio saioetako parte-hartzaile kopurua	Guraso euskaldunen sarea sortuz, familian-ingurukoen artean eredu izateko.	Guraso euskaldunen errolda egitea. Ekintza plana definitzeko batzordea(k) sortzea. Liderrak eta eredugarri diren gurasoak identifikatzea.
		Gurasoen artean kontzientzia sortuz.	Kontzientzian eragiteko ekintzak martxan jartzea: TELP Batzordeko guraso euskaldunak soziolinguistikan janztea. Guraso ez euskaldunekin ere motibazio saioak egitea.
		Guraso eta seme-alaben arteko ekintzak euskaraz antolatuz.	Familia irteerak, umeentzako antzerki saioak, zinea euskaraz... Gurasoei baliabideak ematea seme-alabekin euskaraz jolasteko. Kirol guneetan ekintzak euskaraz antolatzea. Musika edota dantza ikastaroak, eskulanak... Herriko hizkera ikasteko saioak. Bideo jokoak probatzeko eta komentatzeko saioak.
		Euskaraz ez dakiten gurasoen ezagutza handituz.	Seme-alabei laguntzeko prestakuntza klaseak ematea gurasoei.
<b>Haur, nerabe eta gazteen eskolaz kanpoko erabileran eragitea.</b>	Esparru ezberdinetako batez besteko euskararen erabilera.  Antolatutako ekintza kopurua.	Haurrak/gazteak ibili ohi diren esparruetan euskara bermatuz.	Egoeraren diagnosia egitea (eskolaz kanpoko jardueretako euskararen erabilera aztertuz, jarduera arrakastatsuetako erabilera...) eta lehenetsunak finkatzea. Elkarteetako arduradunak kontzientziaztea. Erdal hiztunak nagusi diren esparruetan; formazioa, konpromisoak, hiztegia... Euskararentzako arnasguneak sortzea, haur/gazte gehien joaten diren jardueretan erabilera ziurtatzea. Gurasoak eragile bihurtzea.
		Euskal gazte eragileak/erreferenteak agerian jarritz.	Koadrila edo lagun talde ezberdinetako euskal eragileak biltzea eta ekintzak antolatzea
		Haurrak/gazteak era naturalean euskararen garrantziaz kontzientziaztea.	Ikastetxeetan motibazio saioak egitea Koadrila edo lagun taldeetan motibatuzeko ekintzak antolatzea
		Gazteak eurak protagonista izango diren ekintzak antolatuz.	Lehiaketak antolatzea sariak emanez: telefono mezuen bidez, euskaraz watsapeatzeko taldeak sortuz... Kirol emanaldiak, Zinea euskaraz, Mahai-inguruak... Euskara lehenesten den eskolaz kanpoko jardueren mapa egitea Gazteentzako hitano ikastaroa. Bideo jokoak probatu eta komentatzeko saioak.

## 5.2. AISIA, KIROLA ETA KULTURGINTZA

Helburu estrategikoak	Adierazleak	Estrategiak	Ekintza/programa posibleak
<b>5-20 urtekoen eskolaz kanpoko jarduerak euskaraz bermatzea.</b>	Eskolaz kanpoko jarduera nagusietako euskararen erabilera.	Kanpoko jardueren azterketa eginez eta ekintzak martxan jarriz	Diagnosia egitea (elkarte/enpresa guztiak identifikatzea, euskararen erabilera azterketa egitea...) Ekintzak abian jartzea eta jarraipena egitea Ekintzak koordinatzea eta horretarako batzordea sortzea (Gurasoak, irakasleak, Elgoibarko Izarra, Udala...)
		Jardueretako liderrak euskaldunak izanez edota euskaldunduz.	Jarduera hauetan lan egin ahal izateko irizpideak finkatzea eta betetzen direla ziurtatzea. Hizkuntza jarreretan eragitea. Guraso euskaldunak inplikatzeko. Euskara formazioa eskaintzea euskara ez dakitenentzat.
		Haur-gazteentzako erakargarriak diren ekintzak euskaraz antolatuz.	Haur/gazteentzako programatutako ekintza guztiak euskaraz izatea. Musika eskolako langile eta irakasleen euskarazko profila berrmatzea.
<b>Helduentzako aisialdiko euskarazko eskaintza handitzea.</b>	Heldu gehien biltzen dituen jardueretako euskararen erabilera %	Euskarazko eskaintza indartuz eta gaztelaniazkoan euskarari sarbidea emanez.	Herriko elkarteekin ekintza batzuk euskaraz egiteko konpromisoa hartzea. Jende asko mugitzen duten jarduerak identifikatzea eta horietan euskarari sarbidea ematea. Helduentzako espazio euskaldunak sortzea. Ostalariekin lan egitea euren eguneroko lanean euskarari sarbidea emateko (kartak, menuak, komunikazioa, antolatzen dituzten ekintzak...) Tailerrak euskaraz antolatzea (sukaldaritza, literatura...) Lehiaketak antolatzea (leku-izenak, herri hizkera).
		Kontzientzia sortuz	Euskal hiztunentzako sentsibilizazio kanpainak egitea; euskarazko ekintzetara joan daitezen. Elkarteetako kideentzako sentsibilizazio kanpaina egitea ekintzak euskaraz ere antola ditzaten. Erdal hiztunentzako sentsibilizazio kanpaina egitea euskal mundura gertura daitezen.

### 5.3. ARLO SOZIO-EKONOMIKOA: LAN-MUNDUA, OSTALARITZA ETA MERKATARITZA

Helburu estrategikoak	Adierazleak	Estrategiak	Ekintza/programa posibleak
<b>Merkataritza eta Ostalaritza euskararen erabilera gehitzea.</b>	Dendari eta ostalariekin hartutako konpromisoen betetze maila.	Dendari eta ostalariekin euskararen erabilera handitzeko ekintzak antolatuz.	Dendari-ostalariei konpromisoak eskatzea (lehen hitza euskaraz, irudia publizitatea euskaraz ere, euskaldunak identifikatzekoak...) eta jarraipena egitea. Txankakua merkatarien elkartearekin hitzarmena sinatzea. Idazteko zailtasunak dituztenei laguntza eskaintzea; eskolak, hiztegiak... Terminologia (produktuena, salerosketakoa...) begi-bistan jartzea. Paisaia linguistikoa euskaraz jartzeko diru-laguntzak ematea. Hilero ekintzaren bat egitea (neurketak egitea, tabernetan lehiaketak, gurutzegramak, jolasak, txiste kontalariak, pintxopotean musika euskalduna... Bikain aritzen direnei balio erantsia ematea (sarrerak oparitzuz...))
	Herritarrei begira antolaturiko ekintza kopurua.	Herritarrei zuzenduriko ekintzak antolatuz.	Ekintzen egutegia prestatzea (lehen hitza euskaraz, terminologia, txalo eta txistu, euskararen puzzlea, euskaraz eskatuz gero oparixoa...) Termometroa jarri, euskaraz eskatzen den bakoitzean goruntz doana. Manifestua prestatzea eta atxikimendua eskatzea.
		Euskararen aldeko kanpainak antolatuz.	Kanpainen egutegia prestatzea (herritarrei zuzenduriko sentsibilizazio ekintzak, hilero aste edo egun batean euskara nagusi...) Kontratazio berrietan langile euskaldunak hartzeko kanpaina egitea. Hizkuntza paisaia euskaraz egon dadin kanpaina egitea establezimenduetan. Ekintzak koordinatzeko taldea sortzea.
<b>Enpresetan euskararen erabilera handitzea.</b>	Enpresetako euskararen erabilera indizea.	Enpresetan euskararen erabilera areagotzeko urratsak emanez	Baldintza berdinetan hautaketa prozesu batean langile euskalduna aukeratzea. Langileen arteko komunikazioan eragiteko ekintzak antolatzea. Ageriko elementuak jartzea lantokietan: "hemen euskaraz"... Jangelan euskaraz aritzeko mintzalaguna programa antolatzea. Enpresa handienek inguruan dituzten enpresa txikiekin, euren arteko harremana euskaraz izan dadin konpromisoa hartzea. Udalak sari sinbolikoak ematea euskara plana duten enpresei edota euskararen erabilera areagotzeko urratsak eman dituztenei. Ikasleek lan-praktikak euskaraz egiteko laguntza eskaintzea enpresei. Soziolinguistikako oinarrizko kontzeptuak sozializatzea.
		Euskara planak sustatzeko kanpainak eginez.	Sustapen plana egitea; enpresetara bisitak, laguntzen berri ematea, euskara plana jartzeko aukerak eskaintzea. Elkarlana Debegesarekin eta sindikatuekin. Kontzientziaztea, euskararen normalizazioa denon ardura den ideia zabaltzea.
		Praktika onak zabalduz.	Euskararen egunean topaketa egitea, elgoibartarren esperientziak trukatzeko, erdaraz dihardutenentzako... BARREN aldizkarian enpresetako praktiken inguruko atal iraunkorra sortzea. Elgoibartar langile euskaldunen sarea sortzea adibidez "nik euskaraz lan egin nahi dut" eta facebook edo twenti bidez zabaltzea. Euskara planak dituzten enpresak besteetara joatea onuren berri emateko. Lan munduko euskara batzordea sortzea. Erreferente direnen praktika onak jasotzeko saioak antolatzea (IMH mintegian...)

#### 5.4. EUSKARAREN ONDAREA ETA IKERKUNTZA

Helburu estrategikoak	Adierazleak	Estrategiak	Ekintza/programa posibleak
<b>Elgoibarko ondarea (berbetia, toponimia, ahotsak) herrira zabaltzea.</b>	Euskara zabaltzeko egindako ekintza edo saio kopurua.	Elgoibarko euskara zabalduz.	Modu erraz eta agerian jartzea (Komiki bidez, bideoak....) bertako berbetiaren material dibulgatiboa prestatzea (jolasak, lehiaketak...) BARREN aldizkarian argitaratzea ( komiki eran...) Herriko berbetia gazteen artean zabaltzeko argitalpen erakargarria prestatzea. Eskoletan Elgoibarko euskara formatu ezberdinetan lantzea; irakurketak, entzumena, nagusien ahotik, inguruko herrietakoekin trukea, antzerkiak, belaunaldien arteko lanak, argot hiztegia, ikasleak irakasle... Hezitzaileak, entrenatzaileak, kazetariak, etab heziz; eredu izateko (herriko hizkuntza, hitanoa, toponimia...), zabaltzeko. Ahotsak-eko pasarte bat astero/hilero argitaratzea elgoibarren.net-en. Erakusketa antolatzea egindako lan guztiekin (liburuak, tresnak, ahotsak...). Dagoen materiala digitalizatzea.
		Elgoibarko toponimia zabalduz.	BARRENen bidez Toponimia gizarteratzea (baserrietako auzo mapa berriak jartzea...) Ibilbide toponomikoak prestatzea eta antolatzea. Gazteekin ondarearen inguruko sentsibilizazio saioak egitea. Makina-erremintako tailerrak eta ondare arkitektonikoa.
<b>Kultura ondarean lanean diharduen jendea/elkarteak biltzea eta lanak bateratzea.</b>	Taldeak egindako bilera kopurua.  Taldeak onartutako proiektu kopurua	Ondarean lanean dihardutenak elkartuz eta babestuz eta proiektu komunak aurrera eramanez.	Batzordea sortzea; pertsonak eta elkarteak identifikatzea, gidaritza zehaztea... Elgoibarko euskal ondarearen diagnosia egitea; egoera, ondarearen mapa... Egin beharreko berreskuratze edo ikerketa lanen ekintza plana zehaztea (helburuak , ekintzak, arduradunak...) eta proiektuak koordinatzea.

## 6. Ondorio nagusiak: lehenetsitako esparruak.

2014-2017rako ekintza plana prestatzerakoan, herriko eragileekin egindako praktika komunitateetan jasotakoa izango da oinarri. Hala ere, kontuan izan behar da proposatutako ekintzak/programak asko izan direla eta lehentasunak ezarri behar direla.

Planaren diseinuan eragileek adierazitakotik eta ekarpenetatik ondorioztatu da badirela bi gai, duten garrantziagatik, datozen urteetan lehentasunez landu beharrekoak:

### 1. HAUR ETA GAZTEEN ERABILERA

Haur eta gazteen esparrua landu beharra nabarmen adierazi dute prozesu honetan parte hartu dutenek.

Ikastetxeetan euskararen erabilera lantzen bada ere, ikastetxetik irten ostean haur eta gazteek euskara erabiltzeko aukera gutxiago dute. Parte-hartzaileek gune hauek aipatu dituzte bereziki; kirola, musika eskola eta klase partikularrak.

Neska mutiko gehien jasotzen dituzten jardueretan euskararen erabilera areagotzeko neurriak hartzea garrantzitsua da. Besteak beste, partaideek ondorengoak komentatu dituzte:

- Euskararentzako arnaguneak sortu behar direla, haur/gazte gehien joaten diren jardueretan euskararen erabilera ziurtatzea komenigarria dela.
- Gune hauetako liderrak euskaldundu edota euskaldunak jarri behar direla. Puntu hau garrantzitsua dela uste dute.

### 2. BILGUNEAK SORTZEA, TALDEA BATZORDEA

Talde guztietan komentatu da, elkarteen arteko koordinazio falta, babes falta. Positiboa izango litzateke elkarrekin proiektuak garatzea norbera bere aldetik ibili ordez. Elkarrekin proiektuak lantzeko beharra ikusten dute, elkar babestuz.

Guraso euskaldunen kasuan sare bat sortzea proposatu da, norbanakotik irten eta guraso euskaldunen sarea sortzea, indarrak batzeko.

## 7. Elgoibarko ekintza planak izango dituen helburu estrategikoak eta zehar-lerroak.

Txosten honen hasieran azaldu bezala, planaren hurrengo atal honetan hiru helburu estrategikoei eta bi zehar lerroei loturiko neurri-ekintzak jasotzen dira, 16 esparrutan sailkatuta. Hona hemen:

### Helburu estrategikoak

#### ***Euskararen jabekuntza***

1. Familia bidezko transmisioa
2. Irakaskuntza
3. Euskalduntze-alfabetatzea

#### ***Euskararen erabilera***

4. Administrazioa
5. Gune geografiko euskaldunenak-(guri ez dagokigu).
6. Arlo sozio-ekonomikoa
7. Aisia eta kirola

#### ***Euskararen elikadura***

8. Liburugintza
9. Kulturgintza
10. Publizitatea
11. Corpus-plangintza eta euskararen kalitatea
12. Hedabideak
13. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak

### Helburuak lortzeko zehar-lerroak

#### ***Euskararen aldeko motibazioa***

14. Sentsibilizazioa eta motibazioa

#### ***Euskararen zabalkundea***

- 15. Barruko proiektzioa
- 16. Kanpoko proiektzioa

## **8. Ekintza planean jasotako esparruak eta neurriak.**

### **1. Familia bidezko transmisioa.**

#### **1.1. Sentsibilizazioa eta motibazioa etengabe lantzea.**

- 1.1.4. Gurasoei euskara eta euskal kulturari lotutako produktuak ezagutarazi eta eskura jartzea.
- 1.1.6. Gurasoengan eragitea euren hizkuntza ohiturak seme-alabengan duen eraginaz jabe daitezen.
- 1.1.7. Bikote euskaldunen zein mistoen kasuan, seme-alabekiko hizkuntza jokabideak lantzea.

#### **1.3. Familia barruan euskararen erabilera sustatzea.**

- 1.3.1. Eskolatik kanpo zein eskolan bertan ere gurasoek eta umeek euskara erabiltzeko guneak sortzea eta elikatzea.
- 1.3.3. Familia, eskola eta ingurunearen arteko elkarrenergina sendotzea, gurasoei horretarako baliabideak eskainiz.

### **2. Irakaskuntza.**

#### **2.2. Euskarazko ikasketen eskaintza sendotzea.**

- 2.2.1. Lanbide heziketan euskarazko eskaintza indartzea, horretarako irakasleen prestakuntza hobetuz eta ikasmaterialak eskainiz.

#### **2.4. Euskararen erabilera soziala hezkuntza esparruan aztertu eta bultzatzea.**

- 2.4.4. Irakaskuntzarako ez ezik eskolako ekintza guztietarako euskara harreman hizkuntza gisa bultzatzea (bestelako jardueren egitarau eta programa zehatzen bitartez).

#### **2.5. Ikastetxearen eta haren ingurune hurbilaren arteko euskarazko harremanak sustatzea.**

- 2.5.2. Lan-munduarekiko zubiak eraikitzea, euskarazko praktikak areagotuz eta lankidetzatza proiektuak bultzatuz.
- 2.6. Ikasle etorkinak euskarara hurbiltzeko programak diseinatu eta garatzea.
- 2.6.2. Kanpotik etorritako gurasoei informazioa eta laguntza emateko programak garatzea, sentsibilizazioaren mesedetan.

### **3. Euskalduntze-alfabetatzea.**

#### **3.3. Finantzaketa sistema egonkor bat ahalbidetuko duten aukerak landu eta abian jartzea.**

- 3.3.1. Finantzaketa egonkorrarekin loturik, euskalduntze prozesuan aldatzen doazen premiei malgutasunez erantzuteko sistema bat eratzea.

#### **3.8. Gelaz kanpoko egitasmoak sustatzea, erabilera eta praktika uztartuko dituztenak.**

- 3.8.2. Mintzapraktika egitasmoak (Mintzalagun, Berbalagun, Gurasolagun) zabaltzea

### **4. Administrazioa.**

#### **4.1. Administrazioan euskararen erabilera sustatu eta bermatzea.**

- 4.1.3. Herritarrek administrazioekin dituzten harreman ahozkoetan eta idatzizkoetan bi hizkuntza ofizialak erabiltzeko aukera bermatzea.
- 4.1.4. Hizkuntza paisaian (errotulazioa eta noizbehinkako oharrak) euskararen erabilera bermatzea: erakunde barruko hizkuntza-paisaian euskararen presentzia gehitzea y administrazioaren seinaleztapen publikoan eta noizbehinkako oharretan euskararen erabilera handitzea, komunikagarritasuna zainduz.

- 4.1.5. Erakundearen agerpen publikoetan euskararen presentzia eta lehentasuna bermatzea.
- 4.1.6. Erakundearen ahozko kanpo zein barne-harremanetan euskararen erabilera gehitzeko neurriak hartzea, betiere herritarren hizkuntza-aukera errespetatuz.
- 4.1.7. Erakundearen idatzizko kanpo zein barne-harremanetan euskararen erabilera gehitzea, sortze-lana areagotuz, komunikazioen kalitatea zainduta eta edozein euskarritan.

#### **4.2. Euskara ere lan hizkuntza izateko neurriak hartzea.**

- 4.2.1. Euskara zerbitzu hizkuntza ez ezik lan hizkuntza ere izan dadin bideak jartzea. Dagokien hizkuntza eskakizuna egiaztatua duten langileen eta, edozeinetara ere, euskara erabiltzeko gai den herri-langile ororen ohiko lan hizkuntza izango da euskara ere neurriren batean, progresiboki handiagoa izango den neurrian. (Neurri hori administrazio bakoitzaren hizkuntza kudeaketako planean zehaztuko da, besteak beste kontuan harturik aipatu planean ezarritako helburuak eta bitartekoak, erakundearen hizkuntza egoera, zerbitzu administratiboaren izaera, herri-langileen hizkuntza gaitasuna eta jarrera, eta administrazioaren jarduera-eremuaren ezaugarri soziolinguistikoak; betiere herritarren hizkuntza aukeraren kalterik gabe).
- 4.2.2. Euskara ere ohiko lan hizkuntza izango duten herri-langileei beren lanjardunerako lagungarri zaizkien bitartekoak jartzea.
- 4.2.6. Erakunde barruko sarean, Intranet sarean, euskararen presentzia bermatzea.

#### **4.3. Langileen euskara-gaitasuna etengabe hobetzeko neurriak hartzea.**

- 4.3.1. Hizkuntza-eskakizunen egiaztapenak areagotzeko neurriak hartzea.
- 4.3.4. Euskara lan hizkuntza duten langileentzako prestakuntza iraunkorra bultzatzea (prestakuntza orokorra euskaraz nahiz euskara erabiltzeko prestakuntza berezia).
- 4.3.6. Hizkuntza eskakizunen derrigortasuna zenbat lanpostutan ezarri zehazterakoan administrazioaren jarduera-eremuaren egoera soziolinguistikoa ardatz nagusi gisa hartzea, kontuan izanik, halaber, administrazioen hizkuntza kudeaketako planetan aurreikusitako helburuak eta dagokion administrazioaren hizkuntza errealitatea. Legez, lanpostu batzuetan euskara gaitasuna derrigorrezkoa da, eta besteetan, merezimenduzkoa. Euskara gaitasuna egiaztatzea derrigorrezkoa den ala merezimenduzkoa erabakitzean, banaketa hori arrazoibidez eta proportzionaltasunez egingo dela bermatzea.

#### **4.4. Hizkuntzak erabiltzeko irizpideak finkatzea.**

- 4.4.1. Herri-administrazio bakoitzak bere esparrurako Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Irizpideak (HOEI) finkatzea. HOEIak ondorengo arloetan aplikatzekoak izango dira, besteak beste: herritarrekiko ahozko eta idatzizko komunikazioa, administrazio bakoitzeko lan-arlo ezberdinen eta herrilangileen arteko ahozko nahiz idatzizko komunikazioa, administrazioen arteko idatzizko komunikazioa, komunikazio telematikoak, ekitaldi publikoetako hizkuntza erabilera, itzulpengintza, korredakzioa, erregistroa, tresna eta aplikazio informatikoak, internet eta intranet, argitalpenak, iragarpenak eta publizitatea, hizkuntza paisaia, herri-langileen etengabeko prestakuntza profesionala eta euskara-gaitasunaren hobekuntza, euskarazko komunikazio idatziaren kalitatea eta komunikagarritasuna, eta kontrataziorako hizkuntza-baldintzak.
- 4.4.2. Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Irizpideak betetzen direla bermatzea.
- 4.4.3. Kontratazio-hizkuntza betebeharrak ezartzea eta betetzen direla bermatzea (esleipen prozeduretan baldintza-agirietan jasotzea)
- 4.4.4. Elkarrekin eta enpresei dirulaguntzak ematerakoan edo jarduera publikoetarako baimenak ematerakoan edo udal instalazioen erabileraren lagapena egiterakoan hizkuntza irizpideak ere finkatzea eta hizkuntza-baldintzak betetzen direla bermatzea
- 4.4.7. Itzulpenen eta euskaraz sortzen diren testuen komunikazio-kalitatea bermatzea

#### **4.6. Kanpoko komunikazioan euskararen erabilera gehitzea.**

- 4.6.2. Komunikazio instituzionalean eta erakundearen izenean egiten diren jendaurreko jardueretan euskararen erabilera bultzatzea.
- 4.6.3. Argitalpenetan euskararen presentzia gehitzea.
- 4.6.4. Web orrietan euskararen presentzia gehitzea, komunikagarritasuna zainduta.
- 4.6.5. Iragarki, publizitate eta kanpainetan euskararen presentzia areagotzea, komunikagarritasuna zainduta, eta betiere legeak ezarritako gutxienekoari kalterik egin gabe.



## **5. Gune geografiko euskaldunenak (guri ez dagokigu).**

## **6. Arlo sozio-ekonomikoa.**

### **6.4. Enpresen jardunean hizkuntza-irizpideak ezartzeko pausoak ematea.**

6.4.2. Kanpoko irudian, idatzizko zein ahozko komunikazioan eta adierazpen publikoetan euskararen presentzia bermatu eta sustatzea.

## **7. Aisia eta kirola**

### **7.1. Aisialdiko jardueretan euskararen presentzia eta erabilera indartzea.**

7.1.1. Euskarazko jarduerak bultzatzea bereziki haur eta gazteei zuzendutako ekintzetan.

7.1.3. Aisialdiko eskaintza modu zabalean ulertuz (zinema, antzerkia, literatura, telebista, musika, etab.), euskarazko ekimenak adin tarte guztietako herritarrei zuzentzea,

### **7.2. Begiraleen prestakuntza sendotzea.**

7.2.3. Begiraleen kontratazioan eta aisialdiko ekimenera bideratzen diren dirulaguntzetan hizkuntza-irizpideak txertatzea.

### **7.3. Aisialdiko ekimenera erabiltzen den euskararen kalitatea zaintzea.**

7.3.1. Haur eta gazteentzako antolatzen diren ekitaldietako euskara kalitatezkoa dela bermatzea (bai ekitaldia, bai artisten/begiraleen euskararen ezagutza eta erabilera).

### **7.8. Kirolaren esparruko jardueretan euskararen presentzia eta erabilera sendotzea.**

7.8.2. Herri edota hirietan kirol-arloan diharduten kolektiboekin lankidetzako protokoloak bultzatzea, entrenatzaile, begirale, irakasle, prestatzaile, arbitro eta buruzagien hizkuntza-trebakuntza antolatzeke eta kirol-ekintzetan euskararen presentzia bermatzeko uneoro.

7.8.4. Entrenatzaileak trebatzeke eta horientzako titulu ofizial eta ez ofizialak lortzeko ikastaroak antolatzea.

### **7.9. Euskal herritarrentzat kirolaren eremuan erakargarriak diren jardura, ekintza eta zaletasunetan euskarazko eskaintza areagotzea eta horren eskaera sustatzea.**

7.9.2. Erakundeen laguntzarekin antolatzen diren kirol ekitaldi garrantzitsuenetan euskara komunikazio hizkuntza izan dadin bermatzea.

## **8. Liburugintza.**

### **8.1. Irakurzaletasuna bultzatzea.**

8.1.4. Herri liburutegietan euskarazko liburuen presentzia bermatzea.

## **9. Kulturgintza.**

### **9.1. Euskarazko kulturaren kontsumoa bultzatzea.**

9.1.3. Haurrei eta gazteei zuzendutako kultura ekoizpenak lehenestea.

### **9.2. Euskarazko sorkuntza sustatzeko neurriak hartzea.**

9.2.3. Euskarazko sorkuntza bultzatzeko egitasmoak (sariak, lehiaketak...) abian jartzea edo indartzea.

### **9.4. Euskarazko kultura produktuen zabalkunde egokia egitea.**

9.4.1. Sarean kultura agenda eguneratu eta erakargarria izatea.

9.4.3. Euskarazko kultura ekoizpenen sustapenean hedabide publikoen papera indartzea.

## **10. Publizitatea.**

### **10.2. Herri-administrazioen euskarazko publizitatea hedabideetan argitaratzea.**

10.2.1. Arlo guztiei buruzko publizitate instituzionala euskaraz ere txertatzea, euskarazkoetan ez ezik gaztelaniazko hedabideetan ere.

## **11. Corpus-plangintza eta euskararen kalitatea.**

### **11.3. Herriko toponimia eguneratu, osatu, ofizializatu eta zabaltzea.**

11.3.4. Hizkuntza-paisaia zaintzea, leku berriei izena jartzeko orduan edota jarrita dauden izenak hobetzeko aholkularitza-bideak jarritz.

11.3.5. Toponimia ofiziala eta zuzenaren erabileraren jarraipena egitea eta, berau erabiltzearen garrantziaz jabetzeko, kanpainak egitea (ikastetxeetan, erakunde ofizialetan, hedabideetan?), eta ikasmaterialak eta jokoak prestatzea.

11.3.6. Interneteko eragile nagusiekin elkarlanean aritzea sarean toponimia modu egokian erabil dadin.

### **11.5. Adierazkortasuna zaindu eta indartzeko neurriak hartzea.**

11.5.1. Tokian tokiko euskalkiak zaindu eta euskara batuarekiko zubiak lantzea, euskalkietan bizirik dauden egiturak eta erregistro ezberdinak kontuan hartuz.

### **11.6. Euskararen kalitatea zaintzea.**

11.6.1. Euskararen erabilera publikoaren kalitatea bermatzea.

11.6.3. Euskarazko kartel eta errotuluetan erabiltzen den euskararen zuzentasuna bermatzeko bideak jartzea.

## **12. Hedabideak.**

### **12.5. Hedabideen ezagutza, hedapen soziala eta erakargarritasuna bultzatzea.**

12.5.3. Hedabideen arteko elkarlan-egitasmoak bultzatzea, haien bideragarritasuna indartzeko eta gizarte-eragina handitzeari begira.

## **13. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak**

### **13.2. INTERNETen euskarazko edukiak sustatzea.**

13.2.7. Sare sozialetan euskararen presentzia areagotzeko bideak erraztea.

## **14. Sentsibilizazioa eta motibazioa.**

### **14.1. Euskara balio positiboekin eta modernitatearekin lotzeko ekimenak garatzea.**

14.1.3. Gazteengan eragitea adin talde horietarako erreferente diren pertsonetan oinarrituta eta bide telematikoak lehenetsiz. Euskaraz egiten diren ekitaldiak bultzatzea.

14.1.4. Motibazioaren alderdi guztiak lantzea tailerren edo mintegien bidez: motibazio praktikoa, motibazio sinbolikoa eta motibazio kulturala.

14.1.5. Euskara komunikatiboa sustatu eta zabaltzea, tokian tokiko euskalkiari lekua eginez.

14.1.7. Euskararen Nazioarteko Egunaren ospakizunak elkarlanean antolatzea.

### **14.2. Familia transmisioa.**

14.2.1. Gurasoengan, guraso izango direnengan eta aitona-amonengan eragitea, euskararen familia bidezko transmisioa ziurtatzeko.

### **14.4. Euskalduntze-alfabetatzea.**

14.4.1. Euskara ikasteko sentsibilizazio estrategiak diseinatu eta garatzea.

### **14.6. Arlo sozioekonomikoa.**

14.6.1. Enprekin eta enpresarien elkarteekin elkarrizketak egitea, euskararen erabilera plana gauzatzeko jarraitu beharreko pausuak zein diren azaltzeko, nola parte hartu, laguntza teknikorako zein aukera dauden, etab.

14.6.3. Herritarrengan eta merkatari edo ostalariengan eragitea, herritarraren hizkuntza hautuari egoki erantzuteko, hizkuntza paisaia zaintzeko.

#### **14.7. Aisia eta kirola.**

14.7.1. Aisialdi taldeekiko lankidetzak bultzatzea, euskararen erabileraren normalizazioan ikusten diren gabeziak identifikatu eta elkarrekin garatzeko.

14.7.4. Herriko klub eta kirol taldeekiko lankidetzak bultzatzea, euskararen erabileraren normalizazioan ikusten diren gabeziak identifikatu eta elkarrekin garatzeko.

#### **14.8. Liburugintza.**

14.8.1. Euskarazko irakurzaletasuna bultzatzeko ekimenak sustatzea.

#### **14.9. Kulturgintza.**

14.9.1. Kultura elkarteekiko elkarlana sustatzea, haietan euskararen erabilera sustatzeko.

14.9.2. Euskara sustatzeko programa berezietan ikastetxeak ere parte hartzera bultzatzea.

14.9.5. Herritarrengan eragitea euskal kultura, kondairak eta toponimia ezagutzera emanda: gidak, argitalpen txikiak.

#### **14.10. Hedabideak eta publizitatea.**

14.10.1. Komunikabideak euskarazko kultur, aisialdi eta kirol ekitaldien berriemaile eta partaide bihurtzea.

#### **14.11. Teknologia berriak.**

14.11.1. Herritarrengan eragitea, batez ere gazteenengan, sarera informazio bila euskaraz ere jo dezaten.

### **15. Barruko proiektzioa.**

#### **15.2. Hizkuntza paisaia euskalduntzea gune euskaldunenetan, hiriburuetan eta baita gune jendetsuetan ere.**

15.2.1. Kultura edo kirol jarduera jendetsuetan euskarazko komunikazioa (idatzizko zein ahozkoa) bermatzea.

### **16. Kanpoko proiektzioa.**

#### **16.7. Kanpoko proiektzio handia duten ekimenetan hizkuntza irizpideak kontuan hartzea.**

16.7.1. Zabalkunde handiko ikuskizunetan, kongresuetan edota ekitaldietan euskararen presentzia bermatzea.

### **17. Bestelakoak.**

#### **17.1. ESEPen kokatzen ez diren bestelako gastu orokorrak, diru-laguntzak eta egitasmoak.**

17.1.3. ESEPen kokatzen ez diren ikerketak egitea hizkuntza diagnostikoari, planifikazioari eta abarri buruz.

### **9. Ekintza planaren jarraipena eta ebaluazioa.**

Euskara Sustatzeko Ekintza Plana osatzen duten neurri eta ekintza-proposamenen betetze-maila aztertu eta ebaluatu beharko du aurrerantzean Euska Batzordeak. Horretarako, Planean onartutako neurri-proposamenen jarraipena egiteko ebaluazio-adierazleak finkatuko dira.

Ebaluazioa egiterakoan, zehaztu egingo da alde batetik, aurreikusi diren ekintzetatik zeintzuk burutu diren eta, bestetik, helburua lortzeko balio izan duten ala ez.

